

LURRAMA

2019

AZAROAREN 8 - 9 - 10

HALLE D'IRATY - BIARRITZ-MIARRITZE

NOVEMBRE



LA FERME PAYS BASQUE





LURRAMA 2019
J-150
AZAROAREN 8-9-10 NOVEMBRE
HALLE D'IRATY – MIARRITZE

KLIMA, BIZIA DA – 2019ko tematika

Klima nahasmenduak mehatxatzen gaitu (lehorte-ekaitzak-goseteak-jendalde lekualdatzeak...).

Berotzearen ondorioak kaltegarriak izan daitezke naturarentzat, bainan ere jendartearen biziarentzat.

Badakigu giza jarduerak egoera hortara eraman gaituela. Laborantzak ere mail hortan eragin du , laborariak lehen biktimak bilakaraziz...

Klimaren erronka izugarria da, etorkizuneko belaunaldien bizitza baldintzatzen du. Horregatik LURRAMA saloinak Slow Food-en "KLIMA, BIZIA DA" formula hartu du 2019ko tematika gisa.

Lurraman, tematika bat aukeratzen dugularik, osotasunean tratatzen dugu, izan dadin orokorki edo lokalki.

Laborantza herrikoiak, ingurumena, kontsumitzaileak eta laborariak errespetatzen ditu. Kliman, elikaduran eta osasunean dituen eragin baikorrak azaldu nahi ditugu eta argira eraman lokalki jokatzuz ikuspegi zabalago bat elikatzen dugula.

Gaurregun klima aldaketa, gizartearen kezka nagusietariko bat delarik, parada dugu gai horren inguruan aditu ospetsuen errezipitza.

Aurtengo ekitaldia babesteko, gazama eta gazaita ditugu : Valérie Masson Delmotte, GIECeKo kolehendakaria, eta Piero Sardo, Slowfood eta Bioaniztasuna elkartearen lehendakaria.

Bakoitzaren errola klima aldaketari buruz zer den gogoetatzera gomitatzen gaituzte izan gaitezen laborari, kontsumitzaile, erabakitzaile edo herritar.

1. 2019ko Gazama eta gazaita

Valérie Masson Delmotte

Fisikan doktorea, Pariseko Ecole Centralen diplomatua, klimatologoa, CEAKo (Energia atomikoaren eta energia alternatiboaren agentzia) klima eta ingurumenaren zientzien laborategian ikerlaria, GIECKo (Klima aldaketari buruzko gobernu arteko taldea) kolehendakaria da, eta klima aldaketari buruz herriari adarra jotzen duten 5. txostenaren idazleatarik bat da.

2018an, *Nature* aldizkari ospetsuak hamar zientzialari garrantzitsuenen artean izendatu zuen. Bere jakitatearen transmisioa, bere erantzukizunen bat dela kontsideratzen du : haurrendako liburuak idazten ditu, eta eskola, kolegio eta lizeoetara joaten da dakiena ikasleekin partekatzen. CEAKo ate idekitzeetan ere parte hartzen du... dio bere denboraren %20a jakitatearen partekatzean pasatzen duela.



Piero Sardo



Bra (Italia) 1946an sortua, Slow Food eta Bioaniztasuna Fundazioko presidentea da 2004az geroztik. Slow Food-en sortzaileetako bat eta Radio Libere lehen kontseilu nazionaleko kidea da. Kazetaria da eta besteak beste arnogintzaz axolatzen da.

Hainbat libururen egilea, gasna eta produktu tipikoeri buruz, dastatzailea eta Italiako arno gidaren argitaratzailea da. Gaurregun Slowfood kazetan eta astekari eta hilabetekari desberdinetan kolaboratzen du.

Slow Food proiektu garrantzitsuenetariko batzuen sortzailea bat da (Gustuaren arkuak, Zentinelak, Lurrako merkatuak) Slow Foodeko kanpaina desberdinetan parte hartzen du, batez ere kalitatezko produktuen etiketa egokia eta animalien ongizatea lortzeko.

Azaroaren 8ko konferentzia, 11etan, Hall 1 Klima eta bioaniztasuna, gure elikadura jokoan ? V. Masson Delmotte – P. Sardo

Hitzaldi horrek Lurrama babesten duten bi jende ezagunak bilduko ditu. Alde batetik, 2 mendeetan giza jarduerak eragiten duen planetaren etengabeko eta neurrigabeko beroketa klimatikoaren ondorioak, eta bestetik lurraren bizitzeko mehatxatzen duen bioaniztasunaren apaltze larria. Bi fenomeno hauek, bata besteari estuki lotuak, laborantza saila eta gure elikadura aldatuko dute.

Masson Delmotte Anderea, GIECKo kolehendakaria eta Piero Sardo Jauna, Slow Food eta Bioaniztasunaren lehendakaria, biek, haien ibilbide aberatsa eta jakitateari esker, geroa salbatzeko egoera larriari buru egiteko jokaera moldeaz hitz egingen digute.

2. Gizarte zibila mobilizatzen delarik

Marie Toussaint – Mendearen afera

“Notre affaire à tous”, ONGko lehendakaria, zuzenbide internazionalen jurista, Frantziako Gobernuaren ekintza falta klimaren alde errekurtsoren bultzatzailea da. Bi milioi izenpedura bildu ondoren, Pariseko auzitegian da afera.

Deiadarra jotzeko ekintza ez bortitza andana bat sustengatu izan ditu : ZAD, desobedientzia zibileko mugimenduak, eskola handietako ikasleen manifestua..



Fridays for future Pays basque

Fridays for future mugimendua, 2018ko agorrilan hasi zen, 15 urteko neska batek, Greta Thunberg klima krisia aurrean ekintza eza salatzeke, egunero hiru astez Suediako Parlamentuaren aitzinean jartzeko erabaki zuelarik. Instagram eta Twitteren berehala hedatu zen bere protesta. Euskal Herrian, bi ikasle Joan Rivière eta Luzio Lizarraldeket Gretaren mobilizazioa ikusirik, talde bat sortzea erabaki dute. Otsailetik mugimendua antolatzen da.

Bizi ! – Malika Peyraut

Bizi ! Koordinaketaren kide eta ANV-COP21 Europako Alternatibaren koordinatzailea jinen da Bizi ! taldearen sortzeaz hitz egitera.



Azaroaren 8an, 5etan, lehen estaian Gizartea mobilizatzen delarik Marie Toussaint – Malika Peyraut

Badu 30 urte, 1988an GIEC sortu denetik, zientzilariek doi bat etsiturik, politikari arduraduneri deiadarra jotzen dietela beroketa klimatikoaren ondorio latzak ohartarazteko.

Joan den agorrilaren 28an, Frantziako Transitzio Ekologikorako ministroa demititzen zen, Gobernuaren anbizio eskasa eta urrats ttipien politika salatuz.

Momentu berean, 2018ko udan zehar, Suediako Greta Thunberg ikasleak greba mugimendu bat abiatzen zuen, Suedian lehenik, eta laster mundu zabalera hedatuko zena, ikasleak klimaren alde ostiralero elkarretaratzen hasi ziren. Bestalde, « Denon afera » ONG-ak 2 milioi izenpedura baino gehiago bildu ditu, eta Bizi ! elkarteak aurten 10 urte ospatzen ditu herritarrak eta politikariak antolatzen dituzten ekintzekin inarrosiz.

Gobernuen ekintza eskasaren aurrean eta etekinez gose diren enpresa multinazionalen jarrera haidorren aurrean, gizarte zibilak gaia bereganatu du eta etorkizun bizigarri baten bidean doan ibilgailuaren motorrea izan nahi du.

Hiru erakunde desberdinak aurkeztuz, ikusiko dugu ekintza eta gizartearen mobilizazioa zein garrantzitsuak diren aldaketa handien arrakastarako.

3. Zer egiten ahal dugu orain eta hemen gure laborantxa praktikak hobetzeko ?

Belazkabieta etxaldea, Ezpeleta



Panpi OLAIZOLA mendi gidatzaileak familiako etxaldearen segida hartu du Leire ITURRALDE lagunarekin. Biak ados dira etxaldeko bioainzitasuna garatzeko naturaren errespetu osoan. Ezpeletan ekoizten dituzten produktu guztiak laborantxa biologikoaren araudiekin bat egiten dute eta bezeroeri haien ekoizpenak zuzenki saltzen dizkiete: sasi ardia, Ezpeletako biperra, tokiko motaz osatutako sagardia, aran eta Itsasuko gerezi ekoizpena eta transformazioa erreximentetan, erlauntzak sagardia polinizatzeko eta ezti pixka bat ekoizteko, arto gorria.

Gamarteko Uhartia etxaldeko 26 hektareak laborantxa biologikoan landuak dira. Lau laborari lanean ari dira etxaldean, produktu desberdinak ekoiztuz eta zuzenki salduz :

- 22 behi esnadun (gasnak, esnekiak, ahatxekia)
- Hektare erdi bat fruitugintzan (kiwai, sagar, udare, aran)
- 15 bat xerri urtean,
- 2 hektare arto gorri

Uhartia Etxaldea, GAEC Biok - Gamarte



Larrous Etxaldea – Burgue Erireti



2008an bere ottoren segida hartu zuen Felix Nobliak. Etorkizunik gabeko sistema batean preso zela pentsatuz, aski goiz agro-ekologiaren printzipioetara itzuli zen eta 2017 Laborantxa Ministeritzaren agro-ekologia berrikuntza saria irabazi zuen. Bere berezitasunak: haragitarako behi hazkuntza, alha aldizkatze dinamikoa, landare estalgien alhapidea, ereite zuzena landare estalgietan, zereal ekoizpena : gari, colza, arto.

Azaroaren 9an, arratsaldeko 3tan, lehen solairuan, mahain ingurua : Zer egiten ahal dugu orain eta hemen gure laborantxa praktikak hobetzeko ?

Laborantxa eta oihangintza sektoreek berotegi efektu gasen % 25a isurtzen dute. Laborarien hautuen eta etxaldeetan plantan ezartzen diren praktiken ondorioz, isurtze horiek ttipitzen ala alderantziz emendatzen ahal dira. Zirkuitu laburretan zuzenki saltzeak, lurra irauli gabeko praktika berrien baliatzeak, arbolak etxaldearen sistema orokorrean berriz sarrarazteak, egokiak diren zonbait ekoizpenetan abereen trakzioa baliatzeak, ausarkian diren baliabide naturalekin aritzeak eta murriztuak diren baliabideak ez xahutzeak, eta abar... klimarendako onak diren adibide ainitzak aurkeztuko dizkigute 5 etxaldeetako laborariek, errexki etxalde batetik bestera errepikatzen ahal direnak.

4. Klimarekin bateragarria den hazkuntza



Paul Ariès

Paul Ariès politologoa da, elikaduraz aditua, Zindigné.e.s kazetaren erredaktorea, Doakotasunaren Nazioarteko Behatokiko zuzendaria, eta etxaldeetako animalien eta laborantza herrikoiairen aldeko kolektiboaren animatzailea.

« Une histoire politique de l'alimentation du paléolithique à nos jours » eta « Lettre ouverte aux mangeurs de viandes qui souhaitent le rester sans culpabiliser.. » idatzi ditu, besteak beste.

Andereño egon ondotik, familiako etxaldera itzuli da 2008 urtean. Ardi esnadunak, behi gorri batzu eta Euskal Xerriak hazten ditu eta salmenta zuzena egiten du. Euskal xerriak kanpoan hazten dira bederen hamabi hilabetez. Hiru zerraduretan alhatzen dira libroki. Gaxurra eta bihiak emaiten dizkio. Freskoan edo sukaldatua, xerriak bestelakutzen ditu BELAUN transformatze gelan. Bederen bi urtez xukatu KINTOA xingarra, zinez goi mailako ekoizpen fina du. Esnean hazi bildoskia eta ahatxekia egiten du ere. Taldeko lanean ainitz sinesten du lekuko arrazei balio osoa emaiteko : ardi buru beltza, Pirenaika behia eta Euskal xerria bistan dena.

Xole Aire



Azaroaren 9ko hitzaldia, 11etan, lehen estaian Paul Ariès eta Xole Aire

Beroketa klimatikoaren errudunak xekatzen ditugularik, hazkuntza eta laborantzari pentsatzen dugu usu. Egia da, beste sektoreekin batera, laborantzak bere erantzukizuna duela, baina hazkuntza sistema guzietan beroketa klimatikoa zalutzen ote dute ? Haragi kontsumoa gelditu behar ote dugu planeta salbatzeko ? Ekologiaz axolatzea eta laborantza sustengatzea bateraezinak ote dira ?

Galdera murriztaile hauetatik at, hazkuntza sistema desberdintzea inportantea da. Hazkuntza industrialia ez bezala, hazkuntza herrikoiak paisaiak entretenitzen ditu, lurra aberasten du, pentze iraunkorrak bermatzen ditu, kalitatezko haragia ekoizten du eta baserrialdeko aktibitate ekonomikoa mantentzen du, familia ainitz bizi araziz.

Paul Ariès politologoak eta Xole Aire, Urepelen, ardi, xerri eta behi hazleak, haien ikuspundua azalduko digute.

5. Gaur, nola egin biharko? Acclimaterra txostena Akitanian



Hervé Le Treut

Klimatologoa, klimaren simulazio numerikoaz espezialista, Zientzien Akademiako kidea.

Acclimaterra proiektuaren batzorde zientifikoa zuzentzen du. 240 zientzilari eta adituk lan egin dute 2018ko ekainean « Aldaketa klimatikoa antzizipatzea Akintania Berria » txostena ateratzeko.

Françoise Coutant

Akitania Berriako klima eta trantsizio energetikoaren Lehendakari ordea. Acclimaterra txostena erabili nahi du jendea sensibilizatzeko, eta politika publikoak garatzeko.



Conférence du 9/11 à 17h

Gaur, nola egin biharko? Acclimaterra txostena Akitanian.

Hervé Le treut eta Françoise Coutant

Eskualdean klimaren garapena neurtzen duen txosten bat idatziz, Akintania eta ondotik Akintania Berria aintzindariak izan dira. Txosten horrek klima aldaketek zer ondorio zekarten argitzen zuen. Egoerari buru egiteko eginbideak aholkatzen zituen. Tokiko erabakitzaileak eta bertako jendeen informatzea zituen helburu. Txosten horren azken bertsioa, Acclimaterra, joan den udazkenean argitaratu zuten.

Bi aditu ospetsu, Hervé Le Treut-ek, txosten horretan lan egin duena, eta Françoise Coutant, Akintania Berriko lehendakari ordea, lan hau aurkeztuko digute.

6. On va déguster !

François Régis Gaudry



On va déguster, France Inter irratik emankizun gastronomikoa da.

2010eko udan sortua, igande goiz guziz gastronomiaz maiteminduak diren milioi bat entzule baino gehiagok entzuten dute.

Azaroaren 10eko emankizuna Lurramatik zuzenean eginen da.

Euskal Herriko etxe ekoizpenak aurkezteko aukera ezin hobea !

7. Afitxari buruz

Eliane Heguiaphal, irakaslea da eta argazkilari errabiatua. Badu 20 urte Euskal Herriko lurralde guzietan ihauterietako irudi ederrenen bila ibiltzen dela. Iaz, Lurraman, bere laborarien portretak xuri ta beltzez erakutsi genituen. Aurten, gure afitxaren argazkia egitea galdegin diogu. Etxebarrera joan da, Anthony Sansen baratze biologikora, afitxan ikusten den argazkia hartzera. Bieri eskerrik beroenak.



Eta laster...

Nafarroan prentsaurrekoa
Mediatekan hitzordua
Royal zinegelan proiektzioa
Eta urrian egitarau osoa.

Kontaktua

Lurrama – 20 rue des Cordeliers – Baiona
lurrama@ehlgbai.org
Estelle : 06 89 29 19 85